

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

SAMANIEGOKO UDALA

2017-2018 ikasturtean euskara ikasteko udalaren laguntza deialdia

Euskara ikasteko laguntzen oinarri arautzaileetan zehaztutakoaren arabera (2018ko urtarilaren 24an ALHAOn argitaratu ziren, 10 zk.an), honen bidez 2018. urterako deialdia egiten da, 2017-2018 ikasturtean, 2017ko urriaren 1etik 2018ko ekainaren 30era arte egin diren eskola jarduerari dagokiena.

LEHENENGOA. Xedea.

Oinarri hauen helburua da arautzea nola emango dituen dirulaguntzak Samaniegoko Udalak norgehiagoka bidez xede jakin baterako: euskara ikasteak eragiten dituen gastuak ordaintzen laguntzea, euskararen egoera normalizatzeko eta, bereziki, hizkuntza horren ezagutza eta erabilera handitzeko. Honako modalitate hauetan matrikulatzeak eragiten dituen gastu guztiak onartuko dira dirulaguntzarako:

- 2017ko urriaren 1etik 2018ko ekainaren 30era bitartean ematen diren ikastaro presentzialak.
- 2017ko urriaren 1etik 2018ko ekainaren 30era bitartean ematen diren urrutiko ikastaroak eta multimedia sistemen bitartez egiten direnak.
- Ikastaro trinkoak.
- Barnetegietan egiten diren ikastaroak.

Honako gastu hauek ez dira sartzen deialdi honetan: joan-etorrien gastuak, mantenu gastuak eta ostatu gastuak. Dirulaguntza jasotzeko aurkeztu diren ikastaroen matrikulen gastuak baino ez dira kontuan hartuko. Beraz, barnetegietako ikastaroetan eta antzekoetan, eskaeran ikastaroaren guztirako kostua xehatu behar da, alde batetik matrikularen zenbatekoa eta bestetik gainerako gastuak (materiala, mantenua, ostatua..) zehaztuta.

Euskaltegi homologatuen ikastaroak soilik onartuko dira dirulaguntzarako.

BIGARRENA. Aurrekontu zuzkidura.

Deialdi honetan ematen diren dirulaguntzen guztirako zenbatekoa ezin da izan aurrekontuan ezarritakoa baino gehiago.

Zenbateko hori nahikoa izan ezean aurkeztutako eskariei aurre egiteko, laguntzak modu proportzionalan hainbanatuko dira, gehieneko kopurura heldu arte; dena den, aurrekontu partida hori handitu ahal izango da beste partida batzuetako gastu txikiaren ondorioz.

Gastua Samaniegoko Udalaren 2018ko aurrekontu orokorraren kontura egingo da.

HIRUGARRENA. Onuradunak.

Dirulaguntza hauek Samaniegoko udalerrian erroldatuta dauden pertsona fisiko guztiak jaso ditzakete, honako baldintza hauek betez gero:

- Samaniegoko udalerrian erroldaturik egotea gutxienez jarraikako urtebetean dirulaguntza eskatzen den ikastaroa hasi baino lehen.
- 16 urte baino gehiago edukitzea.

- Deialdiaren lehen oinarrian zehazten diren ikastaro modalitateetako batean matrikulatuta egotea euskara irakasten den zentro batean.

- Deialdiaren laugarren oinarrian zehazten diren baldintzak betetzea.

- Ezingo dira onuradun izan Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2007 Lege Orokorrak 13. artikuluan zehazten dituen egoeretako batean aurkitzen diren pertsona fisiko nahiz entitateak.

- Ezin dira onuradun izan laguntza jasotzeko konputatzen den aldia hasten denean nahitaez eskolaratu beharreko adina duten pertsona fisikoak, eskolaratuta egon zein ez egon.

LAUGARRENA. Eskabideak eta dokumentazioa aurkeztea.

Eskatzaileek honako dokumentazio hau aurkeztu behar dute Samaniegoko Udalaren bulegoetan (Sor Felicias, 1 – 01307 Samaniego) edo azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, herri administrazioen araubide juridikoari eta administrazio prozedura erkideari buruzkoak, eta Sektore publikoaren araubide juridikoaren 40/2015 Legeak ezartzen dituzten bideetako bat erabiliz:

- Udalak prestatutako eskabide ofiziala, ondo beteta.

- Euskaltegiaren ziurtagiria, ikastaroaren berri ematen duena:

- Ikaslearen identifikazio datuak.

- Matrikulazioagatik ordaindu beharreko kopurua.

- Maila eta ikasketa orduen kopurua (astekoak eta guztira).

- Ikastaroaren hasiera eguna eta amaiera eguna.

- Barnetegi batera joanez gero, euskaltegiaren ziurtagiria, gastuak xehatzen dituen: alde batetik irakaskuntza gastua eta bestetik mantenu, ostatu eta gainerako gastuak.

- Beste laguntzarik eskatu bada, beste erakunde batzuek emandako laguntzen zenbatekoa frogatzen duen agiria.

BOSGARRENA. Aurkezteko epealdia.

Oinarri hauek arautzen dituzten laguntzak eskatzeko epealdia hogeita hamar egun baliodunekoa izango da deialdia Samaniegoko Udalaren iragarki oholean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Eskaera eta behar diren agiriak aurkezten direnetik 10 eguneko epealdia egongo da aurkitzen diren akatsak eta irregulartasunak zuzentzeko. Ezarritako epealdian eskatzaileak zuzenketak egiten ez baditu, eskaera besterik gabe artxibatuko da.

SEIGARRENA. Dirulaguntzen zenbatekoa.

Deialdiaren oinarrietan ezartzen diren baldintzak betetzen direla arestian azaldu bezala frogatuz gero, dirulaguntza jasotzeko eskubidea edukiko da. Eskatzaileak deialdian aurkeztutako ikastaroaren matrikularen ehuneko berrogeita hamar jasoko du.

Baldin eta eskaera kopurua dela-eta laguntzen gehieneko zenbatekoak murriztu behar bada aurrekontuko partidako diru kopurura doitzeko, murrizketa proportzionala aplikatuko zaie eskatzaile guztiei.

ZAZPIGARRENA. Justifikazioa.

Jasotzen diren laguntzak 2018ko abuztuaren 30erako justifikatu behar dira. Horretarako honako dokumentazio hau eman behar zaio Samaniegoko Udalari:

- 1) Euskaltegiaren ziurtagiria, jatorrizkoa, ikastaroaren berri ematen duena:

- Ikaslearen identifikazio datuak.

- Ikastaroaren matrikularen kostua.

— Ikastaroa barnetegikoa edo trinkoa izanez gero, gastuak xehatu behar dira: irakaskuntza, mantenua eta ostatua.

• Ikaslearen asistentzia gradua: emandako eskola orduen eta ikasleak parte hartutako orduen arteko erlazioa adierazten duen ehunekoak.

2) Ikastaroa ordaindu dela frogatzen duen bankuko ziurtagiria (edo ordainketen ziurtagiriak, zatika ordaintzea hautatu bada).

Samaniego, 2018ko ekainaren 22a

Alkatea

CRISTÓBAL ZUÑEDA BERGANZO